

Aktorea, dramaturgoa, antzerki zuzendaria, enpresa kudeatzailea, Kultur kudeatzailea, kazetaria, komunikatzailea, dantzaria, edo zine zuzendaria. Hamaika aurpegi ditu Agurtzane Intxaurraga Etxebarriaren ibilbide profesionalak.

Emakume bizkaitarra eta antzerkigile donostiarra, halaxe kokatzen du bere burua. Ez omen daki nondik sortu zitzaion antzerkiarekiko grina, baina 20 urterekin kazetaritza ikasten ari zela eta herriko udalean euskarazko eskolak ematen (18 urtez geroztik) eta itzultzaile lanak egiten, maleta hartu eta Donostiara etorri zen antzerkia bizitzera. 1986.urtea zen eta etxeokak eta herria aztoratuta utzita, bere bizitzan pauso erabakigarria izango zena eman zuen. Garai haietan ohikoa zenez, esanak egiten eta atentziorik ez deitzen erakutsi baizioten etxean, baina berak Donostiako *Antzerki* (Eusko Jaurlaritzaren Arte Dramatiko Zerbitzua) eskolan onartua izan zela jakin zuenean, denari eta denei aurre eginez, berebiziko aukera bizitzera abiatu zen.

Harrez geroztik, eszenak eta eszenatokiak bihurtu ditut gotorleku eta errebeldiarako bide. 34 urtetik gora daramatza istorioak kontatzen, beti dauka bat buruan. Agurtzane indarra da. Agurtzane ekina da. Emakume konprometituta da euskal gizartearekin eta euskal kulturaren erreferente garbia da. Datorren urtean 35 urte beteko ditu enpresari eta sortzaile modura eta sari hau berebiziko aitortza izango zen halako ibilbidea egitea lortu duen emakumearentzat.

1989an HIKA teatroa sortuko du bere ikaskide izan zirenekin. 2009tik bakarrik ari da mikroenpresa hau kudeatzen (bi langilerekin, tarteka hiru ere izan ditu), hala ere asmatu du konpainiari izena eta izana ematen. Egun zalantzarik gabe HIKA Teatroa ere erreferente garbia baita Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere bai.

Etengabeko eta erabateko konfiantza du kulturak mundu berdinzaleagoa, justuagoa eta iraunkorragoa lortzeko duen gaitasunari buruz, non guztiok, gure generoa, jatorria edo hizkuntza edozein dela ere, askatasunez eta elkarrekiko errespetuz hitz egin ahal izango dugun. Jarraian adibide batzuk erabateko indar soziala eta baita politikoa ere erakutsi duten ekoizpenak: Etxebizitzaren arazoa (*Eta ohea egin gabe*, 1989); Intsumisioa (*Chaplin tropela*, 1990); Guggenheim efektua (*Ongi etorri etsai hori*, 1993); Genero indarkeria (*Hitzak*, 2012); Tradizioa eta erlijioaren pisua gizartea heteropatriarkalean (*Koadernoa Zuri*, 2016); Migrazioaren errealitate bortitza (*Tonbola*, 2020). Gaur egungo gazteei ahotsa emango dien kaleko dantza ikuskizuna, (*Gazte*, 2020); Adin txikiei emandako sexu abusuak, genero identitatea, (*Tarara*, 2021).

Herri kulturen eta kulturaren demokratizaioan sinesten du. bere aposturik sendoenetakoa gizartearekin lan egitea izan da. Egungo kultur politikek eta gizarte honek daukan aniztasuna kontutan hartuta, kultur ekosisteman eragile aktibo izan nahi izan du. Horren harira, azken bost urteetan bere ekoizpen guztiek publiko berri eta aktiboak sortzeko mediazio eta sentsibilizazio programak eraiki ditu. Guztietan herriaren edo herriko kolektiboen partaidetza bultzatuz.

Kultura "Glokalean" sinesten du. Kulturak aurrera egiteko modu eraginkorra bezala. Kulturen arteko errespetua eta bake-kultura sustatzeko aukera. Gure herri guztiak eta ez soilik hiri handiak, benetako lurralde "kosmopolitak" izatea amesten du, desberdinen arteko tolerantzia eta gizarte harremanak lehenetsiko diren sormen guneak.

Sektoreko enpresa pribatu gisa izandako 34 urtetik gorako esperientziari esker, kulturaren ikuspegi garaikidea landu du eta gai izan da ibilbidea egiteko gure lurraldeko eta inguruko kultura politikek, gizartearekiko harreman dinamikek, kontsumo moduek, edo aniztasunaren errebindikazioek izan dituzten eraldaketak aztertzeke.

Era berean, 2022an amaitu zuen Kudeaketa Masterra (UOC) oso lagungarria izan du kulturari buruzko ikuspegi poliedriko hau lortzeko. Masterreko bere azken lanean kulturak gizartearekiko eta ingurugiroarekiko izan behar duen jasangarritasunari buruzko proposamen bat aurkeztu zuen ohorezko matrikula lortuz.

Errekomendazio aurkezpen gutun honekin amaitu aurretik anitz aurpegiko emakume honek egindako azken ekintza aipatzeak merezi du. Bera buru dela (ESKENAren izenean, Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarteak) eta urte askoren lanaren ondorioz, sinatu berri da Euskal Erkidegoko Lehen Lan Hitzarmena. Mugarri erabakigarria eta esanguratsua sektore honen etorkizunerako.

Hala ere, antzerkian, zinean, telebistan edo nonahi aritzen dela, bere erronkarik nagusiena beti izan da eta izango da genero ikuspegia lantzea. izan ere, bere konpromezua emakumeen berdintasunaren alde, erabatekoa baita.

Zalantzarik gabe, emakume hau erreferente bihurtu da beste emakume askorentzat, baita gizon askorentzat ere. Izan ere, batzuk bide zuzena izan dutenean eszenaren erdira iristeko, berak emakumea izanda, aldapaz jositako bidea igo du, periferiatik lan egin du. Gizonezkoak gehiago izan diren sektore honetan ere asmatu du ekinez eta ondo eginez erdira iristea. Hau lortzeko, etengabeko formakuntzan aritu da beti, konfort zonetatik ihes egiten, ekoizpen bakoitza etiketatik uxatzeko aldarria bihurtuz.

Honexegatik eta hau guztiagatik Euzko Ikaskuntzaren, Manuel Lekuona Sairaren 40. edizio honetarako Agurtzane Intxaurreaga Etxebarriaren hautagaitza aurkeztera gatz. Emakume honek aurretik ibiltzeko duen bidea oraindik luzea izan arren, ibilitakoa kilometro luze askoa eta batez ere oparoa izan delako Euskal Kulturarentzat eta Euskal gizarte osoarentzat.

"Kultura-adierazpenen aniztasuna eskuraezina izango da emakumeak kultur bizitzako sektore guztietan parte hartzeko moduan ez badaude sortzaile eta ekoizle gisa, bai eta herritar gisa ere",

Ammu Joseph. (Kultura Politikak Birpentsatzeko Munduko Txostenaren 9. kapitulua).



Sinadura: Nagore Martinez Alvarez



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

2023ko deialdia Inprimaki arautua

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

3. Proposamenaren arrazoiak

3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak (bere ibilbidea, euskal kulturarekin konpromiso eta ekarpen nagusiak, dibulgazio lanak, eremu akademikotik kanpo duen eskarmentua...)

INPRIMAKO HONEKIN BATERA BIDALI BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Aurkezpen eskutitza
- ✓ Curriculum Vitae
- ✓ Hautagaiaren argazkia
- ✓ Beste (egon ezker)

Tokia, data eta sinadura

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.

AGURTZANE INTXAURRAGA

Emakume bizkaitarra (Orozkon jaio eta hazi) eta antzerkigile donostiarra (34 urte bertan lanean). Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 1992) eta Kultur Kudeaketako Masterduna (UOC 2022). Irrati Telebistako Komunikatzaileen Prestakuntza Unibertsitate Masterra (EHU,1997). Desagertutako Eusko Jaurlaritzako Arte Dramatikoko Zerbitzuan (Antzerti, 1989) aktore ikasketak burutu ondoren **HKA Teatroa** sortu eta ordutik, eszenatokiak bihurtuko ditu bere pasio eta ofizio, batez ere zuzendari eta dramaturgia lanak egiten. Dantza garaikidea eta kantua dira bere beste bi afizio. *Tonbola, Txarriboda, Koaderno Zuri, Hitzak, Aitarekin bidaiari, Gazte* dira besteak beste HKA Teatroarekin sortu, zuzendu eta idatzitako antzerki lan.

Era berean, HKAren eskutik, erakunde publiko eta entitate pribatuentzat 33tik gora ekitaldi ekoiztu eta zuzendu ditu. hauen adibide: *Eskerrik asko etortzeagatik Itun Soziala 2022. Zarautzeko udalerrian migrazioaren arloan garatutako jardunbide egokiei aitormena*. Baleuko 2022); *Diaspora Eguna, Gernika*. Eusko Jaurlaritza 2023.

Tarteka beste konpainia batzuentzat lan egiten du. Vidania antzerki ekoiztetxearen lehen lana berak zuzendua da *Agurra/ Encuentro* (2021).

Antzerkiaz gain telebistan eta zineman ere lan egin du. Telebistan EITBko Goenkale fikziozko saioan aktore zuzendari eta gidoilari lanak bete zituen hemezortzi urtez, 1994-2012. 2016an berriz, animaziozko bere lehen luzemetraia zuzentzen duenean, *Teresa eta Galtzagorri* (Dibulitoon Studio), 3D-ko animazioko luzemetraia bat zuzentzen duen estatuko lehenengo emakumea izatera iritsiko da. Gainera, filma hau 2017ko Goya sarietan finalista izango da. Egun ekoiztetxe berberarekin bigarren animazioko film luzea zuzentzen ari da, *Korri Kuru Korri*, Patxi Zubizarreta idazlearen izen bereko ipuinean oinarritua.

Argitalpenei dagokionez, hiru antzerki lan ditu argitaratuta, *Ai, ama! Ixa* eta *Aitarekin bidaiari* (Susa, Ganbila kolekzioa 2020), hirurak urteetan bidaide izan duen Arantxa Iturberekin idatziak.

Maurizia Aldaiturriaga pandero jolea, gertukoa zuen eta 2006an *Bidegileak* bilduma barruan haren biografia idatziko du.

Umeen ipuinak ere idatziak ditu, *Teresa eta Galtzagorri*, sei ipuinen bilduma (Banakamedia, 2009), gerora, aurretik aipatutako *Teresa eta Galtzagorri* filmaren oinarri izango direnak.

Horrez gain ESKENA (Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarte), ARTEKALE (Euskal herriko Kale Arteen Elkarte), EABko (Euskal Aktoreen Batasuna) eta Euskal herriko Gidoigileen Elkarteko kide da.

Sektorearen alde eta ESKENAREN izenean egin duen ekarpenik handienetakoa, urte honetako apirilaren 26an sinatu den Arte eszenikoetako lehen Hitzarmena lortzeko egindako lana izan da. Komenioak bere sinadura dauka.

Isiltasuna da bere doinurik gogokoena.

IKASKETAK

- Kultur Kudeaketako Masterra (UOC 2022).
- Irrati Telebistako Komunikatzaileen Prestakuntza Unibertsitate Masterra (EHU,1997). Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 1992)
- Orfeón Donostiarr. kantu Eskola. Diploma 1990-1992 promozioa
- Eusko Jaurlaritzako Arte Dramatikoko Zerbitzua (Antzerti, 1989)
- Dantza Garaikideko urteetako formakuntza: Iñaki landa, Igor Calonge, Myriam Perez Cazabón.
- Zuzendaritza eta Dramaturgia kurtsoak: José Carlos Plaza, Juan Mayorga, Paco Gámez, María Velázquez.

LANA

→ HIKA Teatroaren sortzaile eta zuzendaria (1989-2023)

HIKA Teatroarekin egindako ekoizpenak:

- BIDAIA /DIE REISE /EL VIAJE 2023. Marcus Englert & HIKA Teatra. Musika zuzendaria: Marcus Englert. Eszena zuzendaria eta testuak: Agurtzane Intxaurreaga
- TOTO 2023. Egilea Mafalda Bellido. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga
- TARARA/ LA TARARA 2022. Egilea: Josi Alvarado. Zuzendaritza: Agurtzane Intxaurreaga
- GAZTE /2021. Egilea eta Zuzendaria eta interpretea: Agurtzane Intxaurreaga. Koreografoa: Eneko Gil.
- SEDA / 2021. GNP producciones & Clásicos Contemporáneos & Hika Teatra. Egilea: Alessandro Baricco. Zuzendaria: Juan Carlos Rubio.
- TONBOLA / 2020. Zuzendaritza eta dramaturgia: Agurtzane Intxaurreaga
- ZAPARRADA / AVALANCHA / 2019. Zuzendaria: Igor Calonge. Dantzaria: Agurtzane Intxaurreaga

- TXARRIBODA / EL BODORRIO / 2018. Egilea eta zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga
- SAGARTU / 2017. Oinkari Dantxa Taldea & HIKA Teatroa. Egilea eta zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga. Koreografoa: Eneko Gil
- KOADERNOA ZURI / CUADERNO EN BLANCO / 2016 Egileak: Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurreaga. Zuzendaria eta aktorea: Agurtzane Intxaurreaga
- GAU ARABIARRA / LA NOCHE ARABE / 2015. HIKA teatroa & Kabia & Pabellón 6. Egilea: Roland Schimmelpfennig. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga



- ITSASOAREN EMAZTEAK / MUJERES DEL MAR / 2013. Oinkari Dantza Taldea & HIKA Teatroa. Egilea, Zuzendaria eta Aktorea: Agurtzane Intxaurreaga



- HITZAK / PALABRAS / 2012-2013. Egilea, Zuzendaria eta Aktorea: Agurtzane Intxaurreaga



- ILARGIAREN BI ALDEAK / LAS DOS CARAS DE LA LUNA / 2011. Egilea eta zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga



- AITAREKIN BIDAIA / EL VIAJE DE MI PADRE / 2009. Egileak: Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurreaga. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga



- ZETA / SEDA / 2005. Egilea. Alessandro Baricco. Egokitzailea. Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurrea
- GROAU! / 2004. Egilea: Yolanda Arrieta. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurrea
- IXA / EQUIS / 2003. Egilea: Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurrea
- AI, AMA! / ¡MADRE MÍA! / 2002. Egilea: Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurrea



- OIHANAREN LEGEA / LEY DE LA SELVA / 2001. Egilea: Elvira Lindo. Zuzendaria: Jordi Mesalles. Ekoizpen exekutiboa: Agurtzane Intxaurrea

- EUSKAL OFF 2050 / 2000. Egilea: Agurtzane Intxaurreaga. Zuzendaria: Macarena Pombo
- ARRAUTZA DELIKATUAK / 1999. Egilea: Agurtzane Intxaurreaga. Zuzendaria: Mireia Gabilondo
- XAGUKUMENAK, 1998. Egilea, zuzendaria eta aktorea: Agurtzane Intxaurreaga
- HAU KOMERIA! / 1997. Egilea, zuzendaria eta aktorea: Agurtzane Intxaurreaga
- HENRY BENGEOA INVENTARIUM / 1996. Egilea: Bernardo Atxaga. Zuzendaria: Jorge Amich, Macarena Pombo eta Agurtzane Intxaurreaga
- EASOKO EDERRAK / LAS BELLAS DE EASO / 1995. Egilea, zuzendaria eta interpretea: Agurtzane Intxaurreaga
- BABALIBU, BABALIBA / 1994. Egilea, Zuzendaria eta Aktorea: Agurtzane Intxaurreaga
- ONGI ETORRI ETSAI HORI / 1993. Egilea, Zuzendaria eta Aktorea: Agurtzane Intxaurreaga
- CHARLOTADAK / 1992. Egilea: sormen kolektiboa. Zuzendaria eta aktorea: Agurtzane Intxaurreaga
- AGURO! / RAPIDO / 1991. Egilea: Agurtzane Intxaurreaga. Egokitzena eta Zuzendaria: Garbi Losada
- CHAPLIN TROPELA / 1990. Egilea eta aktorea: sormen kolektiboa. Zuzendaria. Jorge Amich
- M-26 PARIS / 1989. Koreografoa eta zuzendaria: Iñaki Landa. Interpretea: Agurtzane Intxaurreaga
- ETA OHEA EGIN GABE / Y LA CAMA SIN HACER / 1989. Egilea: sormen kolektiboa. Zuzendaria: Jorge Amich. Aktorea: Agurtzane Intxaurreaga



MEDIAZIOA, SENSIBILIZAZIOA ETA PUBLIKO BERRIAK SORTZEKO PROIEKTU PROPIOAK

- TXALOSTEAN. LEZO. Publiko berriak sortzeko proiektua. 2023. Lezoko Udalarekin elkarlanean. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga
- ZAPATA BERRIAK. ASTIGARRAGA, Publiko berriak sortzeko proiektua. IRAILA / 2020. Astigarragako Udalarekin elkarlanean. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga

EKITALDIEN PRODUKZIOA, GIDOIA eta ZUZENDARITZA. *Ad hoc* sortutakoak

- EUSKAL DIASPORAREN EGUNA. Irailak 8 /2023. Gernika. Lehendakaritza.
- ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK! 2022ko ZARAUZKO ITUN SOZIALA. BALEUKOK ekoitzia, Eusko Jaurlaritza eta Zarauzko Udalarekin elkarlanean. EZ GAUDE KONFORME. LOURDES ETA HAMAIKA LORE. Lourdes Iriondoren omenaldia. ETB eta BALEUKOK ekoizia. Abenduak 04 / 2020.
- SAGARDO APURUA. Irekiera Ekitaldia Donostiako Bulebarrean. ABENDUAK 06 / 2019. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte.
- EUSKAL DIASPORAREN EGUNA / IRAILAK 8 / 2019. Ispaster. Lehendakaritza
- VA 400 2 HERRI HELBURU 1 / 2019 / Amasa-Villabonako Udaletxea.
- LIV. DONOSTIA HIRIKO KUTXA LITERATUR SARIAK / ABENDUAK 22 / 2018. Sarien Banaketa Gala.
- ISILDUTAKO AHOTSAK/ IRAILAK 13 / 2018. Memoria Historikoaren Eguna. Donostiako Udala.
- ERESOINKA gogoratuz. Euskal Ordezkaritzei Omenaldia. ABENDUA / 2018. Gasteiz. Lehendakaritza.
- AFRIKA, ANIZTASUNAREN ITSASOA. 2018. Olatu Talka-ren inaugurazioa, Donostia Kultura.
- SANTURTZI, ERBERSTERATUTAKO UMEEN 80. URTEURRENA / 2017. Gogora institutua.

- ILUNPETIK ARGITARA/ IRAILAK 13 / 2017. Memoria Historikoaren Eguna. Donostiako Udala.
- GERNIKAKO BONBARDAKETAREN 80. URTEURRENA / 2017. Gogora Institutua.
- GUERNICA, GARRAXI LAZGARRI, BAKEAREN IKUR. XXVIII. SABINO ARANA SARIAK / 2017. Sabino Arana Fundazioa.
- TIME MACHINE SOUP. DSS2016 Fundazioa.
- TRENAK EKARRI, GERRAK ERAMAN / 2016. Burdinbideetako langileei Omenaldia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- RAMON SAIZARBITORIA, Gipuzkoako Urrezko Domina / 2016. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- MEMORIAREN EGUNA / 2016. Gogora Institutua.
- ARGIA ITZALI DA / IRAILAK 13 / 2016. Memoria Historikoaren Eguna. Donostiako Udala.
- ARTEJIRA / 2015. DSS2016 Fundazioa.
- SAGARDO EGUNA / 2015.
- KOSMODISEA / 2014. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- HAURRAK ETA INTERNETA / 2013. Eusko Jaurlaritza, Gazteria Saila.
- KOSMODISEA / 2013 / 2012 / 2011/ 2010/ 2009/ 2008. Eusko Jaurlaritza, Gazteria Saila.
- AMANTALEN AHOTSA – 75 AÑOS / 2012. Asociación Amantal



Amantalen ahotsa
75 urte

Berriak Maialen Lujanbio
Dantza Oñakari
Aberriak Amaia Zubiria-Zalosa Urañhosa
Arienne Unamuno-Ain_1
Plaza Sorkunde Ilogoras
Belak Mirari Irurzun
Tasaparte Arantxa eta Eli Ansa
Antzerkia Ainere Tolosa-Naiara Arnedo
Itziar Irujo-Sara Cozar-Maite Bastos
Emakumeen testigotasunak Ahotsak.com

Plaza eta lanak
Amantala kultur elkartea
Suzendaritza artistikoa
Agurtzane Intxaurreaga
Argazkaria
Xabier Lizaso
Irudi disainatzailea
David Bernues

Gerra hasi zeneko 75. urteurrena. Emakumeen berriak kontatu, hain zuzen ere, an oinarrituta. Eta orainko prototipoen itxurazkoen baina, gaur egungo artistak. Berriak, zuzeneko musikak, kantuak, antzerkia eta dantza. Alzoko eta gaurko emakumeak soka lotzen dituzte. Eta orain berriak, jaio askeago. Gauri bateko pozak, nireak eta buru-hautsiek kontatzen. Orain bordin, orain umorez. Gerra garaiko eta osteko hitzordia. Emakumeen eguneroko jarduna. Etxean, kalean, eskolan, lanan. Dokumental ikusiz zango duen ikusizun artistikoa. Etxeko memoria historikoa eta artea. Betezuzen arteko transmisioa, modu berri eta modu berriak. Gure historiaren zati biko biko ezagutzeko bidea. Emakumeen ahotsak.

STM www.stm.com

- ELKARTASUN GALA. DONOSTIAKO MUSIKA ESKOLA / 2007. Musika Eskola
- NAZIOARTEKO TRIKITRIXA JAIALDIA. 2006. Trikitrixa Elkartea.
- HABE 25 / 2009. Habe.
- EUSKAL AKTOREEN BATASUNA GALA / 2002 (Zuzendaritza)

ZUZENDARITZA ETA DRAMATURGIA KOLABORAZIOAK

- AGURRA / EL ENCUENTRO. Vidania Produksioak / Estreinaldia 2021
- BALENCIAGA ETA MUSIKA. AZKEN PROBA. Errezitaldi Dramatizatua. 2019. Maria Mendizabal (ahotsa), María José Barandiarán (pianoa).
- ETA ZER GEHIAGO? / 2019. Kontzertu dramatizatua. Andoni Egaña (bertsolaria) eta Xabier Lizaso-Germán Ormazabal (pianistak).
- ICEBERG MAIATZA /2019. MYRIAM PEREZ CAZABON. (kanpo begirada)
- MUTU MAIATZA /2018. MYRIAM PEREZ CAZABON (Kanpo begirada)
- TRIPOTES LA COMPAGNIE CIRCO/ 2018. Zuzendaritza artistikoa sormen prozesuan. Zirkozaurre
- LETTER: GUTUN BATEN BIDAIA / 2016. Malas Compañías Circo.
- SOY ELLAS / 2016. Rojo Telón
- TXATARRA / 2014. Malas Compañías Circo
- OGRO TXIKIA / EL OGRITO/ 2010 Gorakada Teatro

ZINEMA

- TERESA ETA GALTZAGORRI / 2016. Animaziozko filma. Zuzendaritza eta elkarrizketak. Dibulitoon Studio.
- KORRI, KURU, KORRI / 2023/2026. Animazioko filam. Dibulitoon Studio

TELEBISTA

- AZPIMARRA. Arteszenikoen arloan mahaikide astean behin (2018)
- GOENKALE. Pausoka ekoiztetxea. ETB. 1994/2001 Aktore zuzendari gisa. 2001/2012 Gidoilari.
- OLENTZERO KONTAIDAZU proiektua. ETB. 2000.
- TAXI-TAXI. ETB. 1996. Zuzendari

AKTORE LAN AIPAGARRIAK

- GELDITASUNA EKAITZEAN filma luzean amaren pertsonaia.. Vidania Films. 2022
- GAZTE, aktore, eta abeslari. Oinkari Dantza Taldea eta HIKA teatroa. 2021-2023.
- KOADERNOA ZURI, Ama-ren pertsonaia. Estrenaldia 2017, urria. HIKA Teatroaren ekoizpena.
- HITZAK antzezlaneko *emakumea 4* izeneko pertsonaia, HIKA Teatroaren ekoizpena. Saria: ERREPARTOKO AKTORE ONENAREN SARIA. Garnacha de Haroko XVI. Antzerki Lehiaketan, 2014
- BEGIRADAK, EMAKUNDE galaren aurkezpena. Baleuko S.L. (2013).
- EMAKUMEAK HITZA ETA BIZITZA galaren aurkezpena. Bizkaiko Diputazioak eta Baleuko S.Lren ekoizpena. 2012.
- ITSASOAREN EMAZTEAK, antzezlanaren *Saregile 1 pertsonaia*. HIKA teatroa eta Oinkari Dantza Taldea. 2013-2016
- MUGALDEKOAK telesailen *Kattalin* pertsonaia. Tentazioa ekoiztetxea. (ETB). 2010
- IGARTUBEITI Museoa. *Kattalin* pertsonaia. Pasaia Films.

ARGITALPENAK

- BIDAIDEAK (AI AMA!, IXA, AITAREKIN BIDAIAN antzerkit testuak). Argitaletxea SUSA. Ganbila kolekzioa. Egileak: Agurtzane Intxaurrea, Arantxa Iturbe, Hika Teatroa. 2020
- TERESA ETA GALTZAGORRI (sei ipuinen kolekzioa) Argitaletxea: BANAKAMEDIA 2009
- MAURIZIA ALDAITURRIAGA. BIDE GILEAK bilduma. Eusko Jauriaritza 2006

SARIAK ETA IZENDAPENAK

- 2022: 7 izendapen MAX Sarietan: LA TARARA
- 2022: LA TARARA, Zuzendaritza onenaren 1go saria, Haroko Garnacha Antzerki Lehiaketaren XXV. edizioan.
- 2022: LA TARARA, Zuzendaritza onenaren 1go saria, Tororejon de Ardozko Eszenako Emakumeen XXV. Antzerki Lehiaketan.
- 2021: 5 izendapen MAX Sarietan: GAZTE

- 2018: EL BODORRIO, Publikoaren Ikuskizun Hoberenari Saria, Zuzendaritza Hoberenari Saria, Epaimahaiaren Ikuskizun Hoberenari 2. Saria. Garnacha de Haro-ko XXI. Antzerki Lehiaketa
- 2017: TERESA ETA GALTZAGORRI, Platino animazio sarietan Animaziozko Pelikula Hoberena sailean finalista.
- 2017: TERESA ETA GALTZAGORRI, Goya Sarietan Animaziozko Pelikula Hoberena sailean finalista.
- 2015: LA NOCHE ARABE, Muntai Eszeniko Hoberenari saria. Garnacha de Haro-ko XVIII. Jaialdia.
- 2015: HITZAK, Euskal Ekoizpen Hoberena. Ercilla Sariak, XXXI. edizioa
- 2013: HITZAK, Zuzendari Hoberenari Saria eta Publikoaren José María Rodero Sari Berezia, Torrejon de Ardoz Eszena Zuzendarien XVI. Lehiaketa.



- 2013: HITZAK, Aktore protagonista hoberena: Itziar Ituño: Errepartoko aktore hoberena: Agurtzane Intxaurreaga. Garnacha de Haro XVI. Jaialdia.
- 2011: OGRO TXIKIA (Gorakada), FETEn Dramaturgiarik Onenaren Saria
- 2011: AITAREKIN BIDAIAN, Euskarazko Testu Hoberenari MAX Saria.
- 2010: AITAREKIN BIDAIAN, Ikuskizun Hoberenari Saria eta Epaimahaiaren aipamen berezia. Garnacha de Haro-ko XIII. Jaialdia
- 2010: AITAREKIN BIDAIAN, Donostia Antzerki Saria X
- 2006: SEDA, Zuzendari Hoberena, Torrejon de Ardoz Eszena Zuzendarien IX. Lehiaketa

- 2006: Garnacha de Haroko IX. Jaialdian Zuzendaritzarik Onenarena eta Muntaketa Eszeniko Onaren Saria
- 2005: SEDA, Zuzendaritza hobereena Garnacha de Haro-ko VIII. Jaialdia
- 2005: GROAU!, Euskarazko Testu Hoberenari MAX Saria
- 2004: IXA, Euskarazko Testu Hoberenari MAX Saria
- 2003: AI, AMA!, Euskarazko Testu Hoberenari MAX Saria
- 2000: AI, AMA!, Aktore Hoberenari Izendapena, Euskal Aktoreen Batasuna
- 1999: 2050 EUSKAL OFF, Publikoaren Saria, Azpeitia, Euskal Antzerki Topaketak

BESTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANA

- ESKENA (Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarte), ARTEKALE (Euskal herriko Kale Arteen Elkarte), EABk (Euskal Aktoreen Batasuna) eta Euskal Gidoigileen elkarteko kide da.
- Euskal Erkidegoko Lehenengo Lan Hitzarmenean Eskenaren ordezkari izan da.

IKUSKIZUNETARAKO LINK-ak

EL VIAJE-BIDAIA-DIE REISE: [BIDAIA/EL VIAJE/DIE REISE](#)



EL VIAJE-BIDAIA-DIE REISE TEASERRA: [BIDAIA-EL VIAJE-DIE REISE](#)




TOTO TEASERRA: [TOTO-Teaser](#)




KOADERNO ZURI: [AGURTZANE ETA ITZIARREN KOADERNOAK](#)



TONBOLA: [TONBOLA](#)




ZAPATA BERRIAK: [ZapataBerriak TEASER](#)



TARARA/LA TARARA: [LA TARARA-Teaser](#)



GAZTE TEASERRA: [GAZTE-Teaser](#)



TXARRIBODA: [TXARRIBODA Agurra Promo](#)



HORMARIK EZ: [Hormarik ez 1](#)



MEMORIA HISTORIKOA EKITALDIA: [Memoria Historikoa Santurtzin](#)

